

# Noaqua!!

H A M A B O S T E K A R I A

1999ko urriaren 30a IV.urtea

Usurbil, 76. Zenbakia

**Atxega: 1000 urte  
inguruko historia**



## Txerrimunik ordainetan



**Juan Manuel Etxabel**  
Datorren urriaren 31n zure urtebetetzea ospatuko dugu. Jarrai beti bezala. Maite zaitugu. Etxekoak.



Zorionak **Natalia Crismeli Guerra!** Urriaren 31n urte bat beteko duzunez muxu haundi bat. Ama Sonia eta aita Miguel Anjelen partez.



**Zurine**, urriaren 28an 4 urte bete zenituen. Zorionak etxe-koen partez eta muxu haundi bat zure ahizpa Iruneren partez.



Hi, **Manex**: Urriaren 30ean, bat, bi, hiru... lau urte ezta? Ondo pasa eta urteaskuan



**Eneko Eizagirre**. Gure etxeko nagusi txikiak 2 urte beteko ditu azaroaren 5ean. Beti bezain txin-fo eta alai jarrai dezazun, muxu asko etxekoek partez.



Zorionak! Ea zure urtebetetze egunean, urriaren 31n, afariaren bat ordaintzen duzun!



**Javier eta Pilar**. Zorionak eta urte askotarako. Egun on bat pasa biok. Etxekoek partez



**Kontxik** azaroaren 1ean, **Abek** azaroaren 4an eta **Ainarak** azaroaren 8an 38, 31 eta 8 urte betetzen dituzte. Zorionak eta ondo pasa. Familiakoek partez

## Jaiotzak

**Aitor Zabaleta Eizagirre**  
(1999-10-08)  
Muna Lurra

## Hildakoak



1999-10-15  
**Rafaela Intxauspe Alberdi**  
87 urte  
Zubieta

## Eskertzak



**Nikolas Izeta Martiartu**  
zenaren sendiak eskerrak eman nahi dizkie momentu zail hauetan beren esker ona agertu duten herritar guztiei.

### EUSKO TRENBIDEAKEN UDABERRIKO AUTOBUS ORDUTEGIA

#### ASTEGUNETAN

Donostia	Usurbil	Zarautz	Zarautz	Usurbil	Donostia
07.40	08.05	08.25	06.45	07.05	07.30
08.00	08.25	08.35**	07.15	07.35	08.00
08.40	09.05	09.25	07.45	08.05	08.30
09.00	09.30	09.40*	08.15	08.35	09.00
09.40	10.05	10.25	08.45	09.05	09.30
10.40	11.05	11.25	09.20**	09.30	10.00
11.40	12.05	12.25	09.45	10.05	10.30
12.00	12.25	12.35**	10.20*	10.30	11.00
12.40	13.05	13.25	10.45	11.05	11.30
13.00	13.30	13.40*	11.45	12.05	12.30
13.40	14.05	14.25	12.45	13.05	13.30
14.00	14.30	14.40**	13.20**	13.30	13.55
14.40	15.05	15.25	13.45	14.05	14.30
15.00	15.25	15.40*	14.20*	14.30	15.00
15.40	16.05	16.25	14.45	15.05	15.30
16.40	17.05	17.25	15.20**	15.30	15.55
17.40	18.05	18.25	15.45	16.05	16.30
18.00	18.30	18.40*	16.20**	16.30	17.00
18.40	19.05	19.25	16.45	17.05	17.30
19.00	19.25	19.35**	17.45	18.05	18.30
19.40	20.05	20.25	18.45	19.05	19.30
20.00	20.30	20.40*	19.20*	19.30	20.00
21.00	21.25	21.45	19.45	20.05	20.30
22.00	22.30	22.50	21.15	21.35	22.00

\* Orioraino bakarrik

\*\* Aiaraino joaten da

\* Oriofik irtetzen da

\*\* Aiatik irtetzen da

#### ASTEBURUTAN

Donostia	Usurbil	Zarautz	Zarautz	Usurbil	Donostia
07.30	07.55	08.15	06.45	07.05	07.30
08.30	08.55	09.15	07.45	08.05	08.30
09.30	09.55	10.15	08.45	09.05	09.30
10.30	10.55	11.15	09.45	10.05	10.30
11.30	11.55	12.15	10.45	11.05	11.30
12.30	12.55	13.15	11.45	12.05	12.30
13.30	13.55	14.15	12.45	13.05	13.30
14.30	14.55	15.15	13.45	14.05	14.30
15.30	15.55	16.15	14.45	15.05	15.30
16.30	16.55	17.15	15.45	16.05	16.30
17.30	17.55	18.15	16.45	17.05	17.30
18.30	18.55	18.15	17.45	18.05	18.30
19.30	19.55	19.15	18.45	19.05	19.30
20.30	20.55	20.15	19.45	20.05	20.30
21.30	21.55	21.15	20.45	21.05	21.30
22.30	22.55	22.15	21.45	22.05	22.30



- Udala 37 19 51
- Udaltzaingoa 36 11 12
- Anbulategia 36 20 13
- Udarregi ikastola 36 12 16
- Agerialde ikastetxea 36 38 95
- Oiarde kirolegia 37 24 98
- Zumarte 37 15 94
- Etumeta 37 20 01
- Taxi geltokia 36 21 78
- D.Y.A. 46 46 22
- Gurutze Gorria 27 22 22
- Gure Pakea 37 32 28
- Gure Elkarte 37 17 51
- Arrate egoitza 36 63 40
- Eusko Tren 47 09 76
- Noaua! aldizkaria 36 03 21



# Zer irizten?



## Argitaratzailea

Noaua! Kultur Elkartea  
Bordaberri 3 Eguzkitzaldea  
20.170 Usurbil (Gipuzkoa)  
Tlf. eta faxa: 943 36 03 21  
E-mail: noaua@topagunea.jalgi.com  
Web orria:  
<http://www.jalgi.com/topagunea/noaua/>

## Kazetarien koordinatzailea

Josu Aranberri

## Kazetariak

Josu Aranberri, Amagoia Mujika eta Agurtzane Solaberrieta

## Publizitatea

Saioa Erro

## Kolaboratzaileak

Pedro Mari Matxain, Ines Kamino, Leire Atxega, Iñaki Labaka, Iratxe Begiristain, Amagoia Mujika, Xabier Arregi, Pako Agudo, Alfontso Vidal, Alazne Begiristain, Zalao Arnaiz, Maribi Arrospide, Agurtzane Solaberrieta, Joseba Pellejero, Ainara Uribe, Eider Jauregi, Olatz Leoz, Mikel Bengoetxea, Agustin Esnaola, Izaskun Zubiria, Olatz Goenaga, Izaro Aizpurua, Joxe Loidi, Begoña Arriaga, Urko Manterola, Eneko Harreguy, Karmele Urdanpilleta, Joseba Zubeldia, Imanol Goenaga, Joxe Torregaray, Manuel Begiristain, Jone Aliri, Eukene Kamino, Olatz De Miguel, Jone Eizmendi, Jokin Zubiaur eta Arantxa Irazustabarrena.

## Administrazioa

Arantxa Usarralde, Aitor Pikabea eta Nerea Kamino.

## Eredakzio Kontseilua:

Olatz Altuna, Josu Aranberri, Ainhoa Azpiroz, Amagoia Mujika, Agurtzane Solaberrieta, Saioa Erro eta Inaxio Usarralde.

## Maketazioa eta diseinua

Susana Martin, Aitziber Elortza, Olatz Goenaga eta Mertxe Gonzalez.

## Dokumentazioa

Idoia Agirre, Aintzane Aizpurua eta Nagore Gonzalez

## Informatika

Pili Lizaso eta Karlos Aizpurua

## Banaketa

Mertxe Jimenez, Xabier Kamino, Txelo Vidal eta Iker Muguruza

## Elektrikaria

Iñaki Salsamendi

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza

Noaua! hamabostekariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanenen eta iritzien erantzunkizunik.

Noaua! Kultur Elkarteko jendaurreko udarako ordutegia: 11.00-13.00 astegunetan

## Azala:

Atxega jauregia berritzen ari direnean



## Emaus fundazioa

### Ainhoa Labaka

### Emaus Fundazioko hezitzailea

**H**ilabete batzuk badi-ra Emaus fundazioan lan egiten dudala. Fundazio honen esku hartzea sail ugaritan banatzen bada ere, nire egitekoa, sail hauetako batera mugatzen da, hau da, Loiola auzoan aurkitzen den albergean hezitzaile naiz.

Bertan daramadan denbora urria, nere mundutik oso urrun gelditzen den errealitate berri bat ezagutzeko nahikoa izan da. Hala ere, denok ez dugula heziketa eta bizitzeko aukera berdina izan onartzea kosta egiten zait oraindik. Eta heziketa eta modu on bat duten batzuk ez dute berau aprobetxatu.

Alberge honetan denetarikoz jendea topatu dut: dro-

gazaleak, alkoholikoak, etorkinak, etxerik gabeko jendea, famili arazoak dituzten adin txikikoak, presoak, espetxetik kanporatu berriak, ezingabetu fisiko, psikiko eta sensorialak... hitz batean, norbera bere burua edo gizarteak marjinate dituen jendea.

Fundazio honen helburua, kolektibo hau gaur egungo gizartean eta lan munduan integratzea da. Bakoitzak bizimodu normalerako independentzi ekonomikoa lortzea alegia.


Hala ere garbi ikusi dudana zera da: fundazioaren laguntza, motibazioa eta prestakuntza guztiak ez duela eraginik norberak bere burua zulo horretatik kanpo ikusteko gogorik edo asmorik ez badu.



Usurbilgo Udalak diruz lagundutako aldizkaria



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria

Euskal presoak



Euskal Herrira!



# ika-mika

## Liburutegian ixiltasuna?

Nire kexa zera da: urte batzuk badira liburutegira joaten naizela. Ikasturtea hasi eta hotzaren etorrerarekin, herriko liburutegia bete-bete eginda egon ohi da, baina jendea ez da irakurtzen, liburuak aukeratzeko edo ikasten egoten, mokoa astintzen baizik. Gazte(txo) ugari biltzen da, eta bertako arduradunak ahal duena egiten du ixiltasuna lortzeko baina...

Beraz, gazte(txo) guztiei gauza pare bat esan eta eskatu nahi diet: liburutegia lanerako da eta ez oiolategia. Arduradunak ez du erririk, beraz ez sartu berarekin. Eta azkenik, liburutegian lanean

dabiltzan ikasleak errespetatu, beraien zuei denoi errespetatzen zaituzten bezala.

**Ikasle bat**

## Andoni Atxegaren azalpena

75. alean, urriaren 15eko datarekin atera zen alean, irailaren 31ean egin zen ez ohiko plenoari buruzko erreportaia agertu zen. Bertan nire izena azaltzen zen. Izan ere, pleno horretara ez nintzela azaldu jartzen zuen. Horrela da, ez nintzen azaldu, baina horren inguruan argibideak eman nahi nituzke: egun hartan egu-nero bezala lanera joan nintzen goizean. Eguerdiko 14.30etan lanetik atera eta

nire buzoian begiratu nuen; han ez zegoen egun hartan plenoa zegoela esaten zuen idatzirik.


Beraz argi utzi nahi dut plenera ez nintzela joan plenoa zegoenik ez nekielako. Inork ez zidan esan irailaren 31n plenorik zegoenik.

**Andoni Atxega  
(EA-EAjko zinegotzia)**

Irakurle, kexarik baduzu, herritarrei zerbait esan nahi badiezu tarte hau da zuretzat aproposa. Atal honetako gutunak ezizenez sinatu daitezkeen arrez *Noaualk* beti jakin behar du nork idatzi duen. Gutunak *Noaualra* bidali edo bertako buzoian utzi. Eskutitzak orrialde erdikoak izan behar dute, 1200 karaktere ingurukoak.

# xirrikitutik

*Bai suge haundia!  
Horrelakoak ez dira askotan ikusten inguru hauetan. Metro bateko luzera erraz gainditzen zuela apustu egingo nuke. Metrorik ez genuen eraman, baina luzea denik ezin uka daiteke. Bizirik hanka artean ikusi ezker... a ze sustoa. Hala ere guk hilda aurkitu genuen Erroizpeko presara doan bidean.*



# ORBELDI

MARKEL OLAIZOLA  
ASEGURU AGENTEA / Zbk. 200009



**ESTRELLA**  
Aseguru Konpainia

Mota guztietako Aseguroak zure zerbitzurako

Zubikarrena, 10  
Tlf. 943 37 18 07 - Fax.: 943 37 63 41

# MAHUKA

*Gizon eta emakumezkoen modako arropa guztia hemen aurkituko duzu*  
**UDAZKEN HONETAN ZURE MODA BERRJA**

Etxebeste kalea,3 - Tlf. 943 36 11 06


# XABIER EDARITEGIA

**Etor zaitez, eta dasta itzazu Goierriko produktuak**

- X Idiazabal gazta
- X Beasaingo odolkiak...

Kontseju zarra, 13 ☎ 943 36 04 66





## Antonio Tolaretxipi Roteta

Zubietako Araeta baserrian jaio zen duela 54 urte. Soldaduskara joan ondoren, ordea, Zubieta utzi eta Lasartera joan ziren bizitzera "Txipi", bere ama eta bi arrebak. 1977tik taxista lanak egiten ditu.



### Antonio Tolaretxipi izenez, baina "Txipi" ezizenez ezta?

Bai, halaxe da. Gazte-gaztetatik ez baina aspalditik deitzen didate "Txipi". Abizena luzeegia denez, bukaera hartu zuten. Motxagoa da noski.

### Araeta baserrian jaioa, noiz alde egin zenuten handik?

Soldaduskara joan nintzenez. Seme bakarra nintzen, eta soldaduskara joaterakoan ama eta nire bi arrebak ezin zuten baserria eraman. Honela Lasartera joan ginen bizitzera.

### Non egin zenuen ba soldaduska?

Hasieran Ferrolen. Bandera zin egin arte Ferrolen egon nintzen. Gero Kanariar irletara joateko boluntarioak eskatu zituzten eta hara joan nintzen. Garai hartan bi urteko soldaduska egiten zen, baina nik 9 hilabete eta erdi egin nituen. "Teniente coronel" baten laguntzaille jarri nintzen eta lizentziatu eta etxera etortzeko bidea hark eman zidan.

### Soldaduska kontu honekin anekdotaren bat ere baduzu. Kontaiguzu.

Garai hartan Zubietako apaizak, gazteak diru truke, soldaduskatik libratzen zituen. Bere garaian ni libratzeko zerbait egitea bazegoen galdetu zitzaion. Diru kopuru bat eskatu zuen, baina nik diru harekin soldaduska pasako nuela esan nion amari, eta han joan nintzen. Lizentziatuta etorri nintzenez plazara joan beti bezala, eta apaiza etorri zitzaidan. Ea zer lizentzi klaserekin etorri nintzen galdetu zidan, eta nik gehiago ez joateko lizentzia ekarri nuela erantzun. "Hori ikusiko dugu" esan zidan, eta nik "bai, bai, ondo begiratu".

### Noiz eta nola hasi zinen taxista modura?

1977an hasi nintzen. Orduan Michelinen lan egiten nuen. Gidaritza asko gustatzen zitzaidan, eta Pako "Udarregi" taxista hil zenean alargunarena joan nintzen ia zer asmoz zuen jakiteko, eta nik hartu nuen lan hau. Denbora batean Michelinen lan egiten nuen eta taxista modura ere bai.

### Ordutegirik ba al duzu?

Ez. Goizean 6.30ak alderako etorri eta gaueko 21.00ak aldera arte geltokian egoten naiz. Gero guardiarik ez dut egiten, baina norbaitek deitzen badu...joan egiten naiz.

### Taxian urrutien joan zaren lekua?

Egun batean Alicantera joan nintzen. Han zentro batean zegoen pertsona bat eta hemen suhia hil zitzaionez, handik hona ekarri behar izan nuen.

### Usurbildarrek askotan erabiltzen al dute taxia?

Bai, baina lehen baino gutxiago. Normala da, kotxeak ere lehen baino gehiago baitaude. Hala ere estuasunetan, aireportura joan behar denean, erreabilitaziora eramaterakoan, sagardotegi garaian... jendeak taxia erabiltzen du.

### Gogoratzen al duzu zer kotxe erabili zenuen lehen aldiz taxi lanean?

Pako "Udarregi"ren Seat 124a. Harekin izan nuen orain arte izan dudan sustorik haundiena, lanean hasi eta bi egunetara, gabonetan. Txikierdi parean Donostiatik zetorren kotxe batek nire aurrean ezkerreko petrila jo, eta aurretik pasa zitzaidan. Belaunak dardarka nituen eta etxera joan behar izan nuen.

Josu Aranberri

# P A T R I

## J A T E T X E A

Eguneko bazkariak  
eta afariak

Nagusia 6, 20170 Usurbil  
Tel.: 943 36 27 25 (Gipuzkoa)

# TXURRUT

## edaritegia



Giro eta musika atsegina!

San Esteban kalea, 1  
Tel.: 943 36 00 80

Pinturas  
lon

943 83 09 37 ☎ 670 397504



# TXOKOALDE

Iñaki Labaka



## Nekazaritza zentsua dator

Iraila osoan, uraren faltagatik agian, perretxiko biltzen lan haundirik ez zen izan. Perretxiku zaleak askotan saiatu ziren gure inguruko txoko guztiak arakatzan, baita toki ezkutuenak ere, baino alferrik, gaztaina mordo batekin etxeratzearekin konformatu behar izan zuten.

Orain berriz, azken hilabete honetan badirudi perretxikoen uzta ugaria izaten ari dela, eta hori nabaritu dugu. Gure inguruko txokoetan perretxikuzale bat baino gehiago ibilia da. Xextua eta labana esku batean eta makila bestean, txokorik txoko bazter guztiak miatuz, gero afari ederra egiteko xextua onddo, gibeldurdi eta niskaloz beteta eramanez dute.

Bestalde, behin San Praixkuak pasata, negua gainean, gure auzoko baserritarrak piperrak eta babarrun azken aleak bildu ondoren, sagarrak biltzen ari dira orain. Beste lantxo bat ere egin beharko dute, Eusko Jaurlaritzak nekazaritza-zentsua burutzeraz dioala esanaz eskutitz bat iritsi baitzaie. Aurrekoa duela 10 urte burutu zuten, eta datozen egunetan zentsu-agente bat pasako da beren etxeetatik beren nekazaritza-ustiategiari buruz datu batzuk eskatzuz.

Bere lana errazteko, agente hori baserrira etortzerako informazio hau prestatzeko eskatzen zaie Txokoaldeko baserritarrei: lursailen azalera, animalien

kopurua, labore bakoitzaren azalera, erabiltzen den tresneria etab.

Beraz badakizue, terrenoak neurtzen eta haziendak kontatzen hasi txintxo-txintxo. Bat baino gehiagori galdera sorta hau erantzutea belarra moztzen aritzea baino gogorragoa egingo zaio, baina ez da hainbestekorako.



# KALEBERRI

Eneko Harreguy



## Gure kolejiuak sagardotegiak

Zenbaitek izenburua irakurri bezain laster jakingo du zeinen trapuak astintzera natorren. Beste batzuk dudanez egongo dira; eta gaztetxoek ez dute zipitzik jakingo, seguraski! Bada, **Juan Jose Alkain Iruretagoiena** da ikaslea.

Gizon hau Aiako Uztalburu baserrian sortu zen 1829ko urriaren lehen egunean, baina bera gazte zela familia osoa etorri zen Usurbila bizitzera. Nonbait gustatu- ez herria bakarrik- eta Usurbilgo alaba **Maria Bta.**

**Astiasarenekin** ezkondu zen eta hiru alaben guraso egin ziren. Baserrian hazi, hezi eta bertatik bizimodua ateratakoa da, ez baitut baserrik kanpo bizi izan zenik uste.

Izenburuak argitzen digun eran, beren kolejiua sagardotegia bazen, berak halaxe ziolako dio nik, nekez jakingo zuen irakurtzen eta idazten. Kontu hauetan ez-jakina izateak makina bat enbarazu sortarazi zion. Zergatik diodan? Bertsolaria genuelako. Baina ez bat-batean abesten duten horietakoa soilik, bertsolari osoa izaki, paperean idaztea ere maite zuen. Hargatik, bertsuak argitaratu nahi izanez gero **Jose Aranburu**, "**Jose Txiki**" goitizenez ere ezaguna, organujolearenegana jotzen zuen. Honek baserrira laguntzen zion eta Juan Josek paretean adreiluz egindako arrastoak deszifratzen zizkion bitartean, Jose Txiki orri-

ra eramaten zituen bertsuak. Jaio zen urtean jaio zelako Pello Errota, Xenpelar eta beste bertsolari handien garaikidea zen; eta lagunak, noski! Hiltzera zihorala jakin zuenean Pello Errota ikusteko desioa omen zuen. Pello Errota etorri eta nahia betetzen saiatuagatik Juan Josek ez zuen esna egoteko astirik izan. 1895ean 66 urte bete ondoko egunean zendu zen.

Frontoiaren ezker paretaren eta Matista-enearen artean koaktuta dagoen eskultura egin zuten Mendiburuk bere lan eskerga omenduz. Oraindik nor den ez dakienarentzat: Ikastolak bere baserriaren izena eskuratzen du.



# KALEZAR

## Hasi da mugimendua!


**B**ukatatu da gure auzoko ixiltasuna eta lasaitasuna. Ia hasi dira oihuak eta zalapartak sentitzen, futbol liga hasi baita. Ia egunero bada norbait Harane futbol zelaian entrenatzen, neska nahiz mutil. Askotan, gainera, Kalezarko kaxkotik pasatzen dira korrika. Beraz, sortzen dute mugimendurik gure auzo honetan! Onerako, nire ustez.

Asteburuetan, berriz, partidua izaten dira larunbat zein igandetan. Ikusleak epaileen aurka aritzen dira kexuka eta txistuka. Horixe izaten da auzoko "musika". Oihu hauek entzunda erraza da partidua nontik norakoa asmatzea:

Zalaparta haundia ez da ona, Usurbilgo taldea oso txukun ez dabilenaren seinale.


Leku beretsuan jarraituz, baina gaia aldatuz, Saizar sagardotegia ere martxan jarri da. Hasi da sagardoa egiten. Askotan ikusi ohi ditugu trailer haundiak deskargatzen eta pentsatzen jarrita; nonbait sagardo ugari edaten da, hori guztia ez baita Usurbilen edango!

Bukatzeko, azken egun hauetan bideak



Urko Manterola

zikin xamarrek somatu ditut. Zikin hori nondik zetorren begira hasi eta San Juan sua egin ohi den zabalune horretaraino iritsi nintzen. Bertako lurra atera dituzt. Orain zer egingo duten asmatu behar!



# ATXEGALDE


## Udazkenak dakarrena

**G**ure auzo honetan ere, ikutu bat eman digu aur-tengo udazkenak: kale bustiak, hosto ugari lurrean bueltaka eta estoldak erdi itxiak.

Bestalde, egunaren aldaketa dugu, goizez argitu ezin hori eta arratsaldea motzagoa. Hala ere, badauka bere goxotasuna; gaua luzatzean lo gehiago egin dezakezu, edota etxeko giroan lan mota ugari egin daiteke. Dena aprobeitza daiteka aurpegi onarekin begiratuz gero.

Beste alde batera begiratuz, nola prestatu zaizkigun gure

dendariak ere, odolki, lukainka, gaztain, intxaur, babarrun eta hainbat eta hainbat jaki goxo-



Jone Eizmendi

ekin! Horrez gain, ikusi al dituzue gure auzoko eskaparateak? Trukek dauzkan arropa apainak eta Aldatzeko aukera bikaina?

Askotan gabonetan soilik jartzen dugu arreta eskaparateetan, baina orain ere, udazkeneko ikutu hori eman diote dendariak eta gabonetakoak bezain erakargarriak daude gainera. Eta...eskaparateko kristala pasaz, gu barrura sartzeko ahalegina egiten dute.

Beraz, poltsikoa beteta izanez gero, badaukagu non gastatua!



# SANTUENEA

## Ehiza eta arrantza

**U**rria joan zaigu eta azaroa etorri. Epeltasunak hotzari lekua uzten dion garai honetan, egunak gauari lekukoa ematen dion urte sasoi honetan, animaliek berezko protagonismoa hartzen dute.

Hor ditugu txoriak. Egun hauetan ehiztariengandik ihesi ibili ohi dira batera eta bestera, bibitza luzatu nahi badute behintzat. Izan ere, nork ez ditu entzun tiro hotsak Santuenean. Andatza aldean ehiztari ugari dabil udazken honetan, tiroek behintzat hala diote. Egun osoan zehar, goizean goizetik hasita eskopeta soinua nagusi Santuenean ere.

Arrainak ere aipatu behar. Euria egiten duenean zikin samar etortzen da Oria ibaia garai honetan. Hala ere, orain arte eguraldiaz ezin kexatu. Eguzkia euriari nagusitu zaio, eta ibaia txukun antzera pasatzen da Santuenean. Eta noski, hori ona da gure ibai honetan bizi diren arraintentzat.

Iaz izokinak izan ziren albiste. Urte askoren ondoren, gure auzoan dagoen Orbeldiko presa ingururaino iristen hasi dira izokinak. Hauek ibaian gora nola egiten duten ikusteko pasadizo bat ere jarri zuten, baina adituek bakarrik ikusiko zituzten aldi baterako bizilagun

izaten ditugun izokin horiek.

Aurten ere, iazkoa errepikatzea espero dugu. Guztiok ikusi nahi dugu Oria ibai garbia, eta izokinak hemendik pasatzen badira askoz hobe. Eta nola ez, beste mota askotako arrainak ikusiko bagenitu seinale ona izango litzateke.

Santuenea parean, erriberan arrantzan ikusi izan dugu jendea, baina Oriioko zubian egoten diren bezala, Zorrotzeko zubian arrantza egiten imajinatzen dituzue? Nik ez behintzat, inoiz ez baitut horrelakorik ikusi. Ea ba urteen poderioz horrelakorik ikusten dugun.

Agurtzane Solaberrieta



# URDAIAGA

## Despertadorea

**P**um-pum...pum-pum...hotsa da azkenaldi honetan auzo honetako despertadorea.

Ehizeko denboraldia martxan jarri zenetik egun gutxi igaro badira ere ehiztariak ez daude azken egunerarte itxaroteko prest, izan ere lehenengo egunetik hasi baitziren beren ehizarako zaletasuna asetzen.

Goizero eta egunero ordu txikietan jaiki eta eguna argitu aurretik tokirik hoberena hartzea da beren helburua, eguraldi ona izan edo ez.

Eguna argitutakoan, berriz, itxaron egin behar, batzutan

denbora gutxiz baina normalean denbora luzez, uso edo birigarro talderen bat noiz azalduko zain.

Aleren bat agertzen denean berriz hor da tiro hotsa, baina usoak beti altuegi...Eguerdia iritsi da eta:

-Goazemak etxera! Etxeko bazkariarekin konformatu beharko diagu eta!

Ez da ez makaila ehiztariaren

Joseba Zubeldia



afizioa! Hori da pazientzia eduki beharrekoa... Goizeko ordu txikietan hara eta hona ibili, neguko hotza jasan eta gainera, askotan belarriak jetsita etxera esku hutsik joan beharra. Hau da marka!





# AGINAGA

## Ikastaroak gora eta behera

Iratxe Begiristain



Urtero bezala, San Praixku jaien ostean kurtso berriari hasiera eman behar zaio. Guztiok eutsi behar diogu gure-ari, batzuk ikasten, besteak lanean jarraitu hurrengo festak urrun xamar daudenaren penarekin. Aurtengoan, Jubilatuta Elkarteak antolatzen dituen ikastaroen artean aukera zabala da:

- Bolilo bidezko enkajeak
- Pintura
- Telako pintura
- Makramea
- Gantxiloa
- Yoga
- Erreflexoterapia

Kurtso bakoitza astean bi edo hiru egunetan izaten da. Gehienak urte osorako izan arren, erreflexioterapi hilabetez izango da soilik. Yogan, aldiz, bi talde sortu dira: bata goizez eta arratsalde bestea.

Kurtso haue-  
tan parte har-  
tzeko aukera  
jubilatuentzat  
izango da lehe-  
nengoz eta tal-  
dea betetzeko  
geratzen diren  
hutsuneak  
beste edonork  
bete ahal izan-  
go ditu.

Beraz, aurtengoan ere badu-  
gu aukera eskuak trebatzeko.  
Animatuz gero, Arrate zahar  
egoitzan eman zure izena.  
Telefonoa honako hau da:

**943-366340**



# ZUBIETA


## Agirien eta argazkien bila

Xabier Arregi



Bada denbora puska bat "Zubietan, agirietan" proiektua martxan jarri zuela Zubietako Herri-Batzarrak. Lehen ere esana dugu proiektu horrek bi helburu dituela: bata, Zubietari buruz han eta hemen dauden agiriak biltzea eta artxibo batean taxuz antolatzeari; bestea, jasotako informazioa landu eta modu txukun eta ulergarrian liburu batean plazaratzea.

Izango da agindutako liburuaren zain luzetsiz dagoenik; ba lasai, lanak aurreratuta daude eta datorren urtearen hasieran hor nonbait behar du



gure liburuak kalean.

Bien bitartean, hasierako egitasmoa osatzeko asmoa dabil-gigu. Iruditu zaigu agiriak ez ezik, Zubietako irudiak ere jasotzea ederra litzatekeela, eta dagoeneko hasiak gara bilketa horretan. Eskuartearen ditugu,

esate baterako, Kutxako fototekan aurkitutako argazkiak, edo Koch familiako argazkilariek ateratakoak, edo artxiboetan topatu ditugunak.

Baina izango dira argazki gehiago zubietarron etxeetan. Derrigor behar dute izan. Eta ez genuke nahi halakoak bildu gabe uztea. Argazki edo agiri horiek lehengo eskuetara bueltatuko genituzke kopia ateratakoan, jakina.

Beraz, argazki edo agiri zaharren bat eduki ezker, jarri Herri-Batzarreko kideekin harremanetan. Gogotik eskertuko dizuegu.



# Kultura eta Nekazaritza Aholku Batzarrak

**P**asa den Urriaren 18an martxan jarri zen udalean Kultura Aholku Batzarra. Lehendik abiatuta zeuden Euskara Aholku Batzarra eta Ongizate Aholku Batzarrarekin eta oraintxe sortu berria dugu Nekazaritza Aholku Batzarra ere.

Aholku Batzar hauen egitekoa edo funtzioa garbia da: udaleko ordezkariak Udalaren funtzionamendua demokratizatu nahi dute. Udalean hartu beharreko erabakiak alkateak edo zinegotziek bakarrik hartutakoak ez izatea bilatzen da Aholku Batzar hauekin. Erabaki horiek zuzenki eragingo duten sektoreak izan beharko du ahalmena horiengan.

## Kultura Aholku Batzarra

Usurbilen kultura arloan lan asko dago egiteko, gure historiaren pasarteak berreskuratzeko, kultura dinamikoa eta bizia izateko, herritarrek bultzatua eta herritarrentzat bidera-


tua. Eta hor Kultura Aholku Batzarrak badu zeresanik.

Beraz, Aholku Batzar honen egitekoa da urteko kultur egitasmoak bultzatzea, kultur guneak sortzea espazioan zein denboran. Garrantzitsua da, gainera, hauek guztiak euskararen inguruan egitea.

Izan ere, mendeetan zehar Euskal Kultura eta Euskal hizkuntza zapalduak izan dira, eta hor zor historiko bat dago gure herriarekiko, Euskal Herriko kultura eta euskara bultzatzeko tresna izango da aholku batzar hau, beste herrietako kultura errespetatuz.

Azpirarratzekoa da Udal antolakuntzaren aldetik borondate guztia dagoela Aholku Batzarrean hartutako erabaki eta aipaturiko iritziaz aintzartat hartzeko. Organo erabakitzailea ez den arren, Gobernu Batzordearen erabakietan ezinbesteko garrantzia izango du.

Beraz, lehenengo pausua zera izango da: Aholku Batzarrean elkarturiko kultur-taldeek ekarpenak biltzea. Zer egin behar da Usurbilen kultura arloan? Zein hutsune daude?



Udal antolakuntzak eskatu digu talderen bati deialdia egitea ahaztu bazaio barkamena eskatzeko mesedez. Eta bai talde zein herritarren batek uste badu bere aportazioa aberatsa izan daitekeela Kultura Aholku Batzarra irekia da.

## Nekazaritza Aholku Batzarra

Illo beretik, martxan jartzeko prest dago Nekazaritza Aholku Batzarra. Nekazaritza suspertzea eta biziberritzea du helburu batzar honek: baserria zaindu, suspertu eta sendotu.

Udaleko Nekazaritza batzordearen eta Gobernu-batzordearen aholkulari eta eragile izango da, beti ere, Udaleko Nekazaritza-batzordearen kompetentzietan eta Nekazaritzari dagozkion gai guztietan; beraz, Nekazaritzari buruz egin eta azalduko diren lan-planen eta gainerako egitasmoen partaide zuzena izango da bere erizpideak eta aholkuak emateko.

Beraz, aholku batzar hauen funtzionamendu onaren zain gelditu beharko dugu.


**ZENDOIA-ENEA**

**TABERNA**

*Goizeko 7tatik irekia*

Gosariak, hamaiketakoak, eguneroko menuak eta bokatak

Kale Nagusia, 25 Tlf. 943 36 25 60



# Kima

**MASAJE LEKUA**

Kiról masajea eta masaje terapeutikoa  
**Xabier Carbayeda eta Goyo Martin**

 Kale nagusia, 44- behea  
 LASARTE-ORIA


TEL. 36 61 97


**PORTULARRUME**

**ITURGINDEGIA  
 BAINUKO  
 ALTZARIAK**

 Kale nagusia, 2-2-2D  
 Tlf. Denda 36 46 37  
 Etxea 36 52 99




# Atxega jauregia, aintzinako Ahaide Nagusien ondarea



**A**txegatarren izena oso ezaguna izan da Gipuzkoan mendeetan zehar. Usurbil herri modura sortu aurretik berá zen inguru honetako Ahaide Nagusia, eta ganboatarren aldetik borroka ugaritan parte hartu zuten Atxegatarrek oinaztarren aurka. Garai batean dorredun gaztelu bat omen zen

beraien bizileku, baina gaur egun XVI mendean egindako Atxega jauregia da haiengandik gelditu den eraikin bakarra. Luziano de Porcel zen 1826an Atxegakoa nagusi eta markesa. Honen garaian joan ziren usurbildik Lasako jauregira. Azaroaren 30etik aurrera, berriz, jatetxe eta ostatu etxe izango da Atxegatarren

**O**sinalde auzoan, N-634 errepidearen ondoran, bada Atxega izeneko jauregia. Oraintsu arte egoera tamalgarrian egon da 1964an historia eta arte ondare izendatu zuten eraikuntza. Bere garaian ordea, jauregi eder eta bikaina izan zen garai batean "Achega menor" edo "Villa nueva de Achega" deitzen zitzaion jauregia.

Noiz egina den jakitea ez da erraza. 1510eko maiatzaren 22an Atxegako **Juan Beltran Teresa de Artégarekin** ezkondu zenean, aitzak Atxega etxea, burniolak, errotak, lurrak... bere esku utzi zituen, baina han ez zegoen Atxegako jauregiaren aipamenik. 1542an berriz, **Atxegako Maria Velez Francisco Perez de Idia-kaizekin** ezkondu zenean, Atxegarren ondasun guztien zerrenda egin zen eta han Atxega berria edo jauregia eta Atxega zaharra agertzen ziren. Beraz, jauregi hau 1510 eta 1542 artean Atxega zaharraren inguruan, Oria ibaiko

ubidearen tontor batean egin eraiki zutela esan daiteke,

Jauregiaren ezaugarriak eta estiloa kontutan hartzen badira, ordea, adituek XVII. hasiera eta XVIII. bukaeraren artean kokatzen dute. Eraikuntza honek barroko garaiko eragina duela esaten da, batez ere jauregiaren aurrekaldeko sarrera nagusian. Hala ere, adituek esaten dutenez 1625 inguruan jauregi sendoa zen, fosoz inguratuta, harresiarekin, eta dirudienez zubi altxagarria ere bazuen lehen.

1970 urte arte bazen gaur egun Atxega jauregia dagoen inguruan Aitze-zahar izeneko

---

**1510 eta 1542 artean eraiki zutela uste da Atxega jauregia. Lehen dorretxea ere bazuten atxegatarrek**

---


baserria. Hau izan zen garai batean Atxega etxea (casa solar de Achega). Atxega jauregia baino lehenagokoa zen hau, urteetan zehar egindako konponketak bazituen ere, XIII edo XIV. mendean egina zela uste da Oria ibaiaren ondoran. Izan ere, Atxega etxea leinu etxe oso zaharra zen, Usurbil inguruko baserri, lurralde, errota, burniola etab.en kontrola zuen etxea hain zuzen ere. Dirudienez, garai batean bere portua eta kaia zituen etxe honek, Atxegatarrek izokinak arrantzatzeraz joateko.

Baina XII-XIII-XIV. mendeko Ahaide Nagusiek dorretxeak zituztela jakinda, Atxegatarrek ez al zuten dorretxerik?

Atxegatarrei buruzko idazkietan askotan agertzen da Atxegako dorrearen aipamena, baina historialariak dorretxearen kokapena zehazterakoan ez dira ados jartzen.

Belaunaldiz belaunaldi pasatako informazioaren arabera gaur egun Salbatore parrokia dagoen lekuan zegoen





Atxegatarren dorretxea. XVI. mendean eliza bihurtu omen zen, garai hartan eraikitako gehigarri baten bidez. Hala idatzi zuen behintzat 1918 aldera **Guillermo Arana** apai-zak. Beste batzuek, berriz, Atxega etxearen ondoan, muino batean zegoela esaten dute. Azkenik badira Urdaigako dorrea garai batean Atxegatarren dorretxea zela esaten dutenak ere.

### Atxegatarren hasiera

XIII. mendearen azken aldean Usurbil ez da herri, ez hiribildu, Donostiaren zati bat zen. Izan ere, orduko Gipuzkoa, baserri sail bat zen eta hiribilduak oso gutxi ziren.

Herriek baino zeresan haundiagoa zuten orduan ibar edo lurraldeek. Hernani ibarrekoa zen Usurbil. Ibar hauetan Ahaide Nagusien etxeak zeuden, eta haietako bat zen Atxega. Ahaide Nagusiek babesten, elkartzen eta menderatzen zuten ibarra, eta Usurbil inguruan Atxega zen jauntxoa. Ibar bakoitzak bazuen bere sortetxe edo leinuaren sustrai lekua, eta Usurbilen Atxega izan zen etxe hori. Seme, aita, aitona... sendi bat osatzen dute, sortetxetik

lehengusuak... hauek osatzen dute leinua.

Garai hartan **Miguel Ibañez Atxegako** zen Atxegako jauna. Inongo guda edo borroka zenean, han agertzen zen Atxega. Izan ere gudari nabarmena izan omen zen Alfonso XI.ak moroen aurka egin zuen gudatean (1340). Ganboatarren eta oinaztarren arteko borroketan eta Gipuzkoako kontzejuen aurka altxatzean ere aurrealdean agertzen zen Atxega, ganboatarren artean noski. Izan ere, XIV. mendearen lehenaldian **Migel Ibañez Elgoibarko Ines Ganboakorekin** ezkondu zen. Orduan sartu omen ziren ganboatarrak Atxegan.

Negozio kontuan, ordea, ez zuen oso abila izan behar, alderdi honetatik oker haun-

---

**Atxegatarrek  
ganboatarrekin  
borrokatu izan dute  
oinaztarren aurka.  
Usurbilen ere zen-  
bait borroka izan  
ziren**

---

Atxega jauregitik Usurbilgo kasuan, datorren sendia da. Honen aritik sortzen dira gero bigarren mailakoak, honen inguruan biltzen dira ahaide, anaia, iloba,

diak izan zituen: Diru asko hartua zuen nonbait Zarauzko **Joan Ortiz** jaunarengandik eta ezin bueltatu. Dirudienez, honen iloba **Joan Beltran** Atxegakoak oinordekotza arazoak izan zituen **Joan De Ortiz de Araozekin**. Zarautzkoak Atxega berea izan zitekeela uste zuen, Atxegako nagusia semerik gabe hil zelako. Enrike Kastilako erregeak erabaki behar izan zuen auzia 1378an eta erabakia Usurbildarraren alde izan zen: **Joan Beltranen** alde.

### Ahaide nagusien arteko borroka

Ahaide Nagusiak elkarrekin haserretu eta ganboatarren eta oinaztarren arteko borroka sortu zenean, aurreneko erasoaldia Usurbilgo ubidean gertatu omen zen, XIV. mendearen hasieran. **Lazkaoko Martin Lopez Muruako**, gizon izugarri eta beldurgarria, "jendeen izua" deitzen ziotena, hor dator Usurbila oinaztarren buru 1370ean. Ganboatarrak, eta haiekin Atxega argi daude, haiek zaldiz Usurbilgo ubidetik noiz pasako. Han erori omen zen Murua haundia, gezi batek jota hil zuten eta oinaztarrak ihesi joan ziren. Beste batean, **Otxoa Lope Baldakoa** ere eraitsi omen zuten Usurbilgo ubide honetan, hiltzat utzi ere bai, baina hura, zauriturik ere, atera zen uretatik eta ihesi joan. Sarritan izaten zen haserrea eta odola Atxega inguruan.

Gipuzkoan ez zen giro garai haietan. Ahaide Nagusiak beren artean borrokan zebiltzan, eta hiriek ez zituzten hauek ikusi ere egin nahi. 1448 inguruan adibidez, oinaztarrak Mondragoiren jabe egin ziren, eta Ganboatarrak Atxega barne, haruntz joan ziren. Hauek su eman zitoten Mondragoiri oinaztarrak bertan harrapatu eta sarraski



haundia izan zen, Mondrago ketan eta ia etxe gabe uzten dutelarik.

Eraso honen ondoren, ordea, gauzak aldatzen hasi ziren. 1451 eta 1456 bitartean Gipuzkoako anaiarteak bildu ziren Batzarre Nagusian eta erabaki latza hartu zuten: ahaide nagusien dorreak moztu egin behar dira. Eskabidea Enrike IVa Kastillako erregearengana eraman zuten, eta honek aginduta hogeit hamar inguru moztu zituzten, haien artean Atxegarena ere bai. Dirudenez denbora tarte honetan dorreak eta jaun- en etxeak bota eta erre zituzten, Atxegaren dorrea zen haietako bat.

Dorreak bota zituztenean Ahaide Nagusiak ez ziren gus- tora. Errua ez zioten erregeari botatzen, Gipuzkoako anaiar- teari baizik. Honela, 1458an Tolosan bildu ziren Ahaide Nagusi guztiak, **Atxegako Miguel** ere bai noski. Bertan Gipuzkoako anaiarteari beraien aurka altxatzeko eska- tu zien. Hala ere, borroka honetan atxegatarrek ondo atera ziren. Urte haietan jaun- txo asko erbesteratuak izan ziren, baina Achegatarrek ez zeuden haien artean.

Honenbestez Ahaide Nagusien nagusitasunarekin amaitu zen, eta herri izaera nagusitu zen. Hala ere atxga- tarrek Usurbilen indar haundia zuten oraindik. Elizan apaizak hauek ezartzen zituzten, eta herritarren hamarrenaren (diezmo) zati haundi bat beraiek jasotzen zuten.

### Atxegatarrek ondasun ugari

Atxegatarrek ondasun ugari zituzten oraindik XVI. mendea- ren hasieran. 1510eko maia- tzaren 22an **Juan Beltran Teresa de Arteagarekin** Aizarnako Azaloras (Altzolaratz) dorrean. Han ziren **Joan de Atxega eta Grazia de Arrona** gurasoak. Garai hartan hona zer dote eman zioten semeari: Atxega etxea, Salbatore elizaren zaindaritza, burniolak, errotak, baserriak, lur landuak eta lantzekoak, basoak, txarak, sagastiak, soroak, ur biziak eta geldiak eta larrerako ondazilegi guz- tiak eta Atxegaren gain dituz- ten ondoko ondasun guztiak, beren sarrera eta irteerekin. Horren truke, ezkonberriek gurasoak zaindu behar zituz- ten.

1542an **Francisco Perez de Idiakaiz Atxegako Maria Velezekin** ezkondu zen eta Atxegako nagusi bihurtu. Ondasun hauek eskuratu zituen: Etxeko nagusitzaren idazkia, Lanzalote Gotzaiak eli- zaren zaindaritzari Atxegatarren esku uzten duen erabakia, Atxegak San Estebango serorekin zuen agi- ria, Andatzako mendien gain Orreagako monastegiarekin zuten agiria, Lasarte, Zubieta, Aginaga eta Iruzubietako erro- tarekin duen agiria, Andatzen zuhaitzia (Orreagarekin duen tratuzkoa), errotarriak egiten diren Andatzako harrobiak ematen duen etekina, Aginagan herri-saila eta base- rri onak, Ariznabarragan beste herri saila baserri on batekin (hau oraingo Errikoetxe izango zen), beste bi herri sailetan eta ondazilegitan ere badu esku- bidea, Kapaotz, Alperro, Zubitarte eta Gomaztegi, Etxeberri baserriak, lur asko, eliza inguruan mila arroba sagar ematen duen sagastia, uholdeetan egur eta zur asko eman ohi duen Zamabarrene- ko (Zañarrene) uhartea,...

Atxega jauregiak 1768an zituen lur eta baserrien zerren- da haundia zen oraindik: Atxegatarren esku zeuden 5 burni ola, 3 gabi, 3 errota eta 191 etxe. Atxega San Milango markesarenak ziren Atxega jauregia, Atxega zaharra, Alperro, Kaparoz, Bustinzulo, Maskilatza (maskulaitz, noski), Donjuandegi (Soroa 5), Etxeberri (oraingo Zañarrene), Santurune (Santuene), Reitetxea (Errikotxia esaten zitzaiona). Lurrak ere ugari zituen: Sagastiberriko sagastia (parrokiaren inguruan, noski), jauregiko baratzak, Legardako lurrak, Aginagako lurrak. Horrez gain Zestoan, Azkoitian, Gabirin, Lasarte eta Zizurkilen bazituen etxe eta lurrak.



Atxega jauregia eta 1970ean bota zuten Aitze-zar baserria. Baserri hau garai batean Atxegatarren etxe nagusia izan zela uste da



## V. eskulangintza azoka eta erakusketa

**A**zken lau urtetako ohiturari jarraituz, azaroaren 1ean, Santu Guztien Egunean, Aitzaga Elkartek antolatuta Eskulangintza azoka eta erakusketa izango da herriko frontoian. Bertan izango dira ikusgai eta erosgai herriko zenbait artisaren lanak eta baita inguruko herrietako beste zenbaitenak ere.

Santu Guztien egunean izaten du urteroko zita Aitzaga Elkartek antolatutako azoka eta erakusketa honek. Duela lau urte hasi ziren honekin eta aurten bosgarren ekitaldia izango da.

Bertan biltzen dira herriko artisauek gehienak. Azaroaren 1ean behintzat, hor izango dira **Usurbilgo Sagardo**



**Egunaren Lagunek** jarritako sagar erakusketa, nekazal produktuak, euskal oiloak izenarekin hainbat produktuen erakusketa, **Martin Agirresarobe** eztagilea, **Joxe Luis Elexpe** eta **Susana Martin** beren egur-taillekin eta apaingarriekin, **Maite**

**Agirresarobe** bere apaingarriekin, **Manuel Utrera** bas-toigilea, Aginagako **Jabier Argai**z lutierra, Zubietako **Edorta Murua** bitxigilea eta **Urtineako loregintza**.


Hauetz gain, inguruko herrietako artisauek ere izango dira erakusketa honetan. Hala nola, **Maria Pilar Ansa** bere lore prentsatu eta zera-mikarekin, Hernaniko **Axun Otxotorena** ukendugilea, Hernaniko

**Dionisio Usarraga** saregilea, Urrietako **Laureano Paniagua** otargilea eta **Edu hernaniarra**ren larrugintza. **Lasarte, Hernani eta Usurbilgo euskal presoen eskulanak** ere ikusgai izango dira V. azoka honetan.

Artisauek hauen lanak ikusi eta erosteko aukeraz gain, izango da beste berezitasunik. Urtero erakusketa bereziren bat antolatzen dute Aitzaga Elkartekoek, eta aurten **zestugintzako erakusketaren** txanda izango da. Berta, zestugintzako produktuak ikusi ahal izateaz gain, produktu hauek nola egiten diren erakutsiko dute.

Eta noski, jai giroa ez dedila falta. Giroa alaitu eta barrenak alaitzeko taloa jan eta **Saizar sagardotegiak jarritako zizarratik** sagardoa edan ahal izango dute azaroaren 1ean, goiz partean, herriko frontoira agertzen diren guztiek.

Josu Aranberri



Igandetan ganba-ziri mundialak!

# GALARRAGA GARRAIOAK


\* LUR ONGARRIAK  
\* ZABOR BILKETA  
\* ZISTERNA BEREZIAK

☎ 37 01 46



## Odol emaiten azken emanaldia


Amaitu dira urteko odol emanaldiak Usurbilen. Pasa den urriaren 25ean izan zen azken emanaldia eta bertan 52 pertsonak eman zuten odola. Aurreko urteekin alderatuz ez da aldaketa haundirik izan. Usurbilen ematen den odol kopurua gora ez, behera egin du zertxobait, eta datorren urterako jendea odola ematera animatzea beste irtenbiderik ez dago. Badakizue, datorren urtean denok odola ematera herriko ambulatiora.




Usurbilen bada galtzeko arriskuan dagoen anfibio bat. Mendizorrotz mendiaren inguruetan bizi ohi da eta "hegoaldeko igela" izenarekin da ezaguna. Igel mota hau leku hezeetan bizi ohi da eta Euskal Herri osoan ez dago honelako espezierik. Azken urteetan gero eta gutxiago ikusten direla eta PPko bozeramaileak, Leopoldo Barrerak "hegoaldeko igel" hau desagetzeko arriskuan dagoela esan du. Leku hezeetan eraikitzen ari diren industrialdeak omen dira horren errudun.

## Informatika ikastaroa azaroan

Guraso eskolak ikastaroak antolatzen jarraitzen du. Aretotik dantza ikastaroa eta antzerki tailerraren ondoren, informatika ikastaroa antolatu du. Azaroaren 15etik 25era bitartean, ostegunetik ostiralera arratsaldeko 16.00etatik 18.30etara Zubietako Lanbide Eskolan burutuko dira ikastaro hauek. Matrikula 10.000 pezetakoa izango da eta plazak mugatuak. Izen emateko Udarregi zaharrera azaldu beharko da azaroaren 8an arratsaldeko 17.30etatik 19.00etara.



Pasa den urriaren 14an ez ohiko bisitariak izan genituen Usurbilen. Hiru asto eta dozena erdi bat txakur inguru hartuta Noruegako bikote bitxi batek egonalditxo bat egin zuen herrian. Eskutitz mordo bat postetxean utzi, frontoian atsedean hartu eta oinez, Zarautz alderako bidea hartu zuten. Baina nola joan mendiz mendi Zarautza? Frontoi inguruan galdetzen ibili omen ziren, baita bidea ondo gogoan hartu ere, han abiatu baitziren Andatza aldera.



Kale Nagusitik pasatzean ez duzue zerbait arrakroa nabaritu? Begiratu al diozue Saroe jauregiari? Izan ere, jauregi honen fatxada erabat aldatuta ikusiko duzue piska batean. Fatxada aurrean aldamioa jarri dute, jauregiaren aurrekaldea zaharberitzeko asmoa baitute. Azken urteetan Saroe jauregiaren aurrekaldearen egoera ez zen oso ona, harri pusketak erortzen baitziren. Zaharberitu ondoren lasaiago egongo dira markesanezko petrilean eserita egoten direnak.




# TABERNA

## "GYRE PRESOK

## HERRIAN BEHAR DITVGY"

Irazu kalea, 12  
TIF: 943 36 02 17



# TXIRIBOGA TABERNA

pintxoak, bokatak  
eta plater konbinatuak

Irazu kalea, 3 Tel.: 943 37 00 13





# Garaipen gehiago judon



**B**i asteburu oso emankor izan ditu aken aldian Usurbilgo Judo Elkarteak. Bai judoan eta bai sambon emaitza politak lortu dituzte. Zenbait txapelketetan domina ugari lortzeaz gain, maltan jokatu den herrialde txikientzako sambo txapelketan ere izan dira bertako kide batzuk.

Judon beti bezala jarraitzen dute herriko taldeko judokek. 18 urtez azpiko taldeak bost domina eskuratu zituen Oizartzungo txapelketan. Bertan, lehiakide izan zituzten Asturias, Errioxa, Aragoi, Nafarroa, Kantabria eta Frantziako Pau hiriko taldeak izan zituzten aurrez-aurre eta 150 judokak parte hartu zuten emaitzak bikainak izan ziren: **Andoni Aizpurua eta Aitzol Arrospidek** urrezko dominak eskuratu zituzten, zilarra **Xabier Heras eta Iker Pagolak** eta brontzea **Eñaut Arriagak**.

Bestalde, senior taldea Logroño aldean izan zen beste hiru talderen aurkako txapelketan. Errioxa, Araba eta Kantabriako taldeetako eta Usurbilgo Judo Elkarteko judoken arteko norgehiagoka ikusi ahal izan zen Logroñon. Usurbildarrek ez zuten huts egin eta lehenengo postua eskuratu zuen **Andoni Aizpurua, Ibai Peña, Xabier Urkizu, Iker Ostolaza eta Mikel Pongak** osatutako taldeak.

Sanbon, berriz, Maltan duela hiru aste inguru jokatu zen Herrialde txikien Munduko Sambo Txapelketan, Usurbilgo Judo Elkarteko kideek hiru domina eskuratu zituzten beste 9 herrialdeetako borrokalarietara lehiatzen. **Ibai Peñak eta Iker Lizarribarrek** zilarrezko domina eskuratu zuten eta **Xabier Urkizuk** brontzezkoa.

# Emaitzak

## Futbola

### Urriak 16-17

Usurbil F.T **2** Mondragon **2** (1.R.)  
 San Ignacio **2** Usurbil F.T **1** (n.)  
 Burumendi **3** Usurbil F.T **2** (1.ju.)  
 Antoniano **2** Usurbil F.T **3** (2.ka.)

### Urriak 23-24

Allerru **6** Usurbil F.T **3** (1.R.)  
 Usurbil F.T **3** Eibartarrak **3** (1.ju.)  
 Añorga B **2** Usurbil F.T **3** (2.ka.)

## Eskubaloia

### Urriak 16-17

Usurbil K.E. **27** Arabakan **24** (2.N.)  
 Amenabar **40** Usurbil K.E. **12** (ju.m)  
 Zarautz **31** Usurbil K.E. **21** (k.m)

### Urriak 23-24

Arrate **24** Usurbil K.E. **27** (2.N.)  
 Santutxu **38** Usurbil K.E. **10** (ju.m)  
 Santutxu **33** Usurbil K.E. **30** (k.m)  
 Urnietako **9** Usurbil K.E. **5** (ka.n)

## Hondartzako futbola

Aginaga Sagar. **1** Elf Atochem **4**

## Futbol aretoa

Karobi taberna **2** Laskorain **1**  
 Allerru **2** Karobi taberna **1**

## Laburdurak

**R.:** errejionalak      **ka.:** kadeteak  
**N:** nazionala        **n.:** neskek  
**ju.:** jubenila         **m.:** mutilak



Solarium  
 Depilazioa

Peluqueria  
 Ileapaindegia

Aurretik ordua  
 eskatu.

NAGUSIA, 2 - Tif 943 37 28 44  
 USURBIL



**ALDAMU**

Kale Nagusia, 2 - Tel: 943 37 27 95

Zapatak, Kanpinak,  
 Kremaierak (poltsak,  
 zamarrak, galtzak...)

Giltzak kopiatzen ditugu

**TRUKA**  
**TRUKA**  
**TRUKA**  
**JANTZIAK**

Erdiko kalea, 2  
 Tel: 94337 34 81



# Nabazko eztia

*Benetako artisauen produktua*



*Eguna gozatuko dizu!*

**Kalitatezkoa**

Usurbilen salgai: IRATZE belardenda eta MAHUKA

**ARGIAREN USURBILGO ADISKIDEAK**



## Hainbeste amestutako Paris etxe atzeko parkea


**P**aris etxe atzeko parkea albiste iturri bilakatu da berriz ere azken hilabete honetan. Urte asko pasa dira egitasmo honen berri izan genuenetik, baina inoiz ez da gauzatetik hain gertu egon. Ideia lehiaketa egin zenean parkea nolakoa izango zen jakin genuen, baina zer gehiago dakigu parke berriaz? Proiektua esku artean hartu ondoren hemen duzu jakin ahal izan dugun guztia.

Kaleberrin beste parke bat izango dugu laister batean. Paris etxearen atzean dagoen belardia eta lehen Udarregi ikastola zenaren atzean dagoen aparkalekua leku garrantzitsua bihurtuko da usurbildarrontzat. Proiektua egiterakoan kotxeentzat aparkalekuak eta asteroko azokarentzat leku bat izatea ezinbestekotzat jotzen zen, eta horrez gain beste elementu batzuk jarriko dira 4.970 m<sup>2</sup> karratu dituen lurzoruan.

Gaur egungo ikuspegia erabat aldatuko da. Aparkalekuaren eta belardiaren alboetan

dauden harresiak bota eta bi sailak berdinduko dituzte 73 metroko luzera eta 30,5 metroko zabalera duen plano horizontal bat geldituz. Bertan kokatuko dira bolatokia, haurrentzako parkea, azoka jartzeko eginkizun ugaritarako leku estalia eta zuhaitzez betetako atsedenekua.

Arrilaga etxearen aurrean, gaur egungo aparkalekuaren sarreraren ondorengo eremu horretan, estalitako bolatokia egongo da. Eskubi aldera hormigoizko eustorma edukiko du, eta bolotara jolasten



# Zure publizitatea hemen jarri dezakezu!

Tlf. 943 360321





denean, hauek ikusteko ormi-  
goizko banku luzeak jarriko  
dira beste aldean.

Honen ondoan, ezkerretara,  
Udarregi zaharraren aurrean  
kokatuko da haurrentzako par-  
kea. Izaera eskultorikoa izango  
duen egurrezko elementuen  
multzoa totema, arealekua,  
eta haurrentzat ariketa fisikoak  
bultzatzen dituzten elemen-  
tuek osatuko dute.

Asteazkenero azoka jartzen  
dutenak lasaiago etorriko dira  
proiektua gauzatzen denean.  
Izan ere, azoka egiteko leku  
estalia izango dute.  
Haurrentzako parkearen ondo-  
an, ezkerretara, Paris etxearen  
aurrean, 22,40 x 14,30 metroko  
zabalera duen ormigoizko lau-  
kizuzena jarriko da. Argizatuta

joango den leku honetan, azo-  
kaz gain, bestelako eginkizu-  
nak ere burutu ahal izango  
dira. Azoka erdialdean jartze-  
an lrazu kaletik kotxeen noiz-  
behinkako sarrera posible izan-  
go da, beharrezkoa denean  
noski.

Azkenik, Kale Nagusia 10  
aldean zuhaitzez betetako  
atsedenlekua egongo da.  
Ezker aldetik ormigoizko eustor-  
ma izango du, eta hemendik  
azoka egingo den leku estalira  
zuhaitzez osatutako bi ilada  
jarriko dira, tartean gelditzen  
den lekuan atseden hartzeko  
bankuak egonaz.

Oraingo aparkalekua ken-  
tzen badute, non utzi ahal  
izango dira kotxeak?  
Horretarako bi aparkaleku sor-

tuko dira. Kale Nagusia 10ean,  
gaur egun aparkalekua dago-  
en leku horretan 28 ibilgailu-  
rentzako tokia izango da, eta  
Eguzkitzaldean, bidearen  
ondoan, gaur egun harresia  
dagoen lekuan jarriko da  
beste 28 ibilgailurentzako  
aparkalekua.

Kotxeen joan etorria errazte-  
ko errotanda egingo da Kale  
Nagusia 10 eta Eguzkitzaldeko  
sarrera inguruan. Leku horre-  
tan bat egingo dute Eguzki-  
tzalderako sarrerak, Kaleza-  
rrera joateko bide berriak,  
orain Bordatxoko errotondara  
doan bideak eta aparkaleku  
sarrerak. Beraz, joan etorriak  
errazteko arraultza itxurako  
errotanda egingo da.

**Josu Aranberri**

## JOSE AIZPURUA UNANUE

Igeltseritza eta pintura

Teilatuen berritzea



Fatxaden konponketa

Pintore kalea, 1 - 3.A  
LASARTE-ORIA  
Tel.: 36 17 83

Muna Lurra, 20 - 1.B  
USURBIL  
Tel.: 943 36 37 67



Galdaragintza eta Errementaldegia

TALLERES  
SETABU, S.L.  
TAILERRAK

Ulgarte Industrialdea, 7 Pabiloia  
20.170 Usurbil (Gipuzkoa)

Tel.: 943 36 08 48



## Hilketa istripu bat izan omen zen

**P**asa den urriaren 13an hasi zen Donostiako Probintzi Entzutegian Pello Arregi Bitxisaltzailearen ustezko hiltzaileen aurkako epaiketa. Hasiera batean fiskalak akusatuek beren ardurak onartu eta haien kontrako zigorrak murrizteko akordioa lortu zutela iragarri bazuen ere, akusatuetako baten abokatuak bertan behera utzi zuen akordioa. Epaiaketak aurrera darrai.

Gertakariak iazko martxoaren 12an gertatu ziren. Pello Arregik zuen bitxi-dendan lapurreta egiteko asmoz sartu ziren Antonio G.G. eta Ramon V.V.. Dendariak ez zizkien eskatutako bitxiak eman eta aurre egin zien. Ukabilkadaka, borrokan ari zirela, bi lapurretako batek, Ramon V.V.:ek ustez, gertutik tiro egin zion. Dendaria bertan hil zen, eta ustezko hiltzaileak alde egin zuen. Antonio G.G. ordea, denda ondoan atxilotu ahal izan zuten. Hauekin batera Luis Miguel S.V.ri biktima hiltzeko erabili zuten arma gorde izana leporatzen diote.

### Larría, baina istripua

Ustezko hiltzaileek epaiketan emandako testigantzan, Ramon V.V.ek Antonio G.G.rekin bitxidendara lapurreta gauzatzeko asmoz sartu zirela onartu zuen. Honek gertatutako istripua izan zela azpimarratu zuen, "larría baina istripua azken batean".

Bitxi saltzailearekin izan zuten borroka tarteko, haren aurka tiro egitea "senezko erreakzioa" izan zela argudiatu zuen. Zinpekoen aurrean egindako deklarazioan berak tiro egin zuen unean Antonio G.G. bitxisaltzaileak eman zion kolpearen ondorioz "lurrean" eta "konortea galduta" zegoela esan zuen, eta beraz, ez zuela zuzenean hilketan parte hartu.

Antonio G.G.k bertsio bera berretsi zuen bere deklarazioan. Gertakariak ikusi zituzten bi lekukoek aldiz, Antonio G.G.k ahuldade zantzuak zituela, baina konortea ez zuela galdu deklaratu zuten.

Luis Miguel S.V. ustezko hiltzailearen iloba eta krimena estaltzeaz akusatua dagoen gizonak ere deklaratu zuen. Honek bere etxean arma ezkutatu zuela aitortu zuen, baina arma hori zertarako erabili zuen sekula ez omen zuen jakin "Zerbait larría" egin zuela

esanez eskatu omen zion mesedea osabak, baina zerbait hori zer izan zen zehaztu gabe.

### Estrategia aldaketa

Epaiaketaren hasieran zinpeko epaimahakideen aurrean, hiru prozesatuek gertakarietan izan zuten erantzukinzuna onartu zutela jakinarazi zuen fiskalak. Horren truke, defentsek eta akusazioek beraien aurkako zigorrak arintzeko akordioa lortu zutela esan zuen. Ustekabean, ordea, Antonio G.G.ren abokatuak estrategia aldatuz, konorterik gabe zegoela argudiatuz, bere bezeroak hilketan parte hartu izana ukatzen zuela esan zuen.

Aldaketa honek bertan behera utzi zuen akordioa, eta akusazio partikularrek aldatu egin beharko dituzte akusatuaren aurkako zigor eskaerak.

Josu Aranberri



**JUANTXO**  
Burdindegia




Kale nagusia, 10  
Usurbil

☎ 37 00 08

Iturgintza - Gasa - Berokuntza

**J. Orbegozo**



Bizkarra 1, 1. esk.

☎ 37 29 37 - 36 59 26

**ALBORTA**

HARATEGIA

Behoko kalca, 4  
Atxegalde

☎ 943 36 57 42



## Lehiaketa



### Nortzuk dira argazki honetan daudenak?

Guzti hauen izen-abizenak behar ditugu

Asmatzaileen artean Tragoxka tabernan bi pertsonentzako afaria zozketatuko dugu.

Zeresanik eman du 75.aleko lehiaketan jarri genuen argazkiak. Batzuk ezagunak ziren, besteak, ez, baina guk badaezpada guztin izenak emango ditugu: **Mikel Zinkunegi, Inma Perez Rubio, Loli Caceres, Eva Fernandez, Socorro Aguirre, Conchi Olasagasti, Beatriz Hernani, Belen Pedrosa, Loli Diez, Maite Hernani, Isabel Gutierrez, Pepi Araolaza, Amparo Gilarte, Inma Herrero, Eli Villafafila eta Maite Manso.** Erantzun batzuk jaso ditugu, eta horien artean argazkian bertan agertzen den Maite Mansori egokitu zaio Antxeta tabernan afaltzeko aukera. Zorionak!

### BAZKIDE TXARTEA

5.000 PEZETA URTE OSORAKO



Izena: \_\_\_\_\_  
 1.Abizena: \_\_\_\_\_  
 2.Abizena: \_\_\_\_\_  
 Helbidea: \_\_\_\_\_  
 Herria: \_\_\_\_\_  
 Tfnoa: \_\_\_\_\_  
 Kontu Korrontea (20 digito): \_\_\_\_\_

**455**

**bazkide ditu Noauak!**

**Zu ere egin zaitez**

**bazkide**

## TXIMINIA ALTZARIAK

**Osinalde industrialdea**

(Aizpurua autobusen aldamenean)

**Tel.: 943 37 09 66**

BISITA EZAZU

ALTZARI ERAKUSKETA HANDI BAT  
USURBILEN BERTAN.

PREZIO HARRIGARRIAK! AUKERA  
HANDIA ALTZARI TRINKOETAN.

*ESKAINZA BEREZIAK BETI!!*



## URRIAK 29 ostirala

- Azarotik ekainera bitartean burutuko den **antzerki tailerrean izen emateko eguna**. Udarregi zaharrean, arratsaldeko 19.00etan.
- **Senideaken manifestazioa** arratsaldeko 20.00etan. Frontoitik izango da irteera.

## AZAROAK 1 astelehena

- Aitzaga Elkartek antolatuta V. **Eskulangintza azoka eta erakusketa** herriko frontoian goiz partean. Parte hartzaileak: **Usurbilgo Sagardo Egunaren Lagunak** (sagar erakusketa), **nekazal produktuak** (euskal oiloak), **Martin Agirresarobe** eztingilea, **Joxe Luis Elexpe eta Susana Martin** (egur-taila eta apaingarriak), **Maite**

**Agirresarobe** (apaingarriak), Manuel Utrera bastoigilea, **Jabier Arg aiz** lutierra, **Edorta Murua** bitxigilea, **Maria Pilar Ansa** (lore prentsatuak, zerami-ka), **Axun Otxotorena** ukendugilea, **Dionisio Usarraga** saregilea, **Laureano Paniagua** (otar-gintza), **Edu** (larrugintza), **Urtienea** (loregintza). Hauekin batera zestugintzako erakusketa eta beren erabilera ikusi ahal izango da.

- **Euskal Herria Askatu konzentrazioa**. Bordatxo aurreko errotondan 20.00etan.

## AZAROAK 1 astelehena

- **Guraso Eskolak** antolatutako informatika ikastaroan izena emateko azken eguna. Izena eman nahi duenak azaldu dadila Udarregi zaharrera

arratsaldeko 17.30etatik 19.00etara. Ikastaroa Zubietako Lanbide Eskolan izango da azaroren 15etik 25era.

- **Euskal Herria Askatu konzentrazioa**. Bordatxo aurreko errotondan 20.00etan.

## OHARRAK

- ✓ **Gidari bat behar da C-1 gida baimenarekin**. Baldintzak jakin nahi izanez gero deitu 649 422327 telefonora.
- ✓ **Usurbilen 3-4 gelatako pisua behar da alokairuan** inmobiliarik gabe. Deitu gaueko 22.00etatik aurrera 943-361210 telefonora (Niko).
- ✓ **Andatzpe elkartean bazkide hutsune bat dago**. Baldintzak jakin nahi dituenak deitu 943-366760 telefonora



Azaroaren 1ean eskulangintza azoka eta erakusketa izango da herriko frontoian goiz partean. Herriko eta inguruetako beste herrietako artisauen lanak ikusi ahal izango dituzu. Barrenak alaitzeko, berriz, sagardoa zizarran eta taloa

## INFORMATIKA IKASTAROA

**Non:** Usurbilgo Lanbide Eskolan.

**Noiz:** Azaroaren 15etik 25era.

**Ordutegia:** Astelehenetik ostiralera 16.00etatik 18.30etara. (20 orduko ikastaroa.)

**Plaza mugatuak eta matrikula 10.000 pezeta.**

Izen ematea azaroaren 8an arratsaldeko 17.30etatik 19.00etara Udarregi zaharrean

**Antolatzailea:**  
Guraso Eskola




## Urtinea Elkartea

*Loreak - Lore landareak*

*Lore sortak - Koroak*

San Esteban  
Tlf.: 943 36 22 55



## Ekaitz

**Bideo eta ARGAZKIAK**


Usurbil


Tlf 943 36 14 87

OTARTZUN



# Gozatu udaz urte osoan zehar



 **902 123 456**  
**NaturGas, Euskadiko gasa**



**NaturGas**



Sociedad de Gas  
de Euskadi, s.a.

Grupo EVE



# Usurbilgo OFIZIOAK zure eskura dituzu

## Aroztegiak

### BEREZIARTUA

Egurrezko eta aluminioegurrezko

lehoiak

Izpira etxea

Aginaga

☎ 943 37 15 71- Faxa 36 01 59

### GONSABI S.L.

Ugarte, 9

Kalezar

☎ 943 37 10 61

### IBARGOEN, JOSE RAMON

Neurriko altzariak

Errotaberri kalea, 3- Osinalde

☎ 943 36 14 48 - 36 31 24

### IKUTZA, JOSE MARI

Ugarte,4

Kalezar

☎ eta Faxa 943 37 12 21

## Pinturak

### FERNANDO PINTURAK

Bizkarre, 6

☎ 943 36 60 19 - 36 34 60

### BARCENILLA, RAMON

☎ 629 46 09 66

### ION PINTURAK

Orio

☎ 670 39 75 04 - 943 83 09 37

## Iturgintza

### LATAILLADE, IÑAKI

Aristitxulo kalea, 8

Atxegalde

☎ 943 36 33 48 - 36 26 35

### ORBEGOZO, JAVIER

Iturgintza, gasa eta berogailuak

Bizkarre kalea, 1- 1.esk

Kaleberri

☎ 943 37 29 37 - 36 59 26

### OSTAPE - ARANGUREN

Ostape etxea

Kalezar

☎ 943 36 16 95 -

### PORTULARRUME, XEBERO

Kale Nagusia, 10

Kaleberri

☎ 943 36 46 37

## Elektrizitatea

### IZAGIRRE, MIKEL

Goiz-Argi etxea, 37

Kalezar

☎ 943 36 50 95

### ARGILAN

Instalakuntza elektrikoak

kontzeju zaharra, 13

☎ 943 37 02 74

## Igeltseritza

### ARANZAZISTROKI, JOSUE

Igeltseritza eta pintura

Aldapatxo etxea

Kalezar

☎ 943 36 24 71 - 36 05 50

### ERRAZKIN C.B.

Kale nagusia, 1

☎ 943 37 26 79

Santuenea

☎ 629 42 05 65

## Eskaiola

### NORIEGA, EUGENIO

Erdiko kalea, 12

Atxegalde

☎ 943 36 56 65

### ELORZA, JOSE ANTONIO

Galtzaragaina 2 - 2.B

☎ 943 37 34 70

Gida honetan azaldu nahi  
baduzu, deitu!  
943 36 03 21  
telefonora!